

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

2,35 milioi banatzeko laguntza-deialdia egin da ekipamendurako eta I+G+b azpiegiturak kudeatzeko

Nafarroan dauden teknologia-zentroek eta ikertzeko eta ezagutzak hedatzeko erakundeek izan dezakete aukera irailaren 11 arte

Astelehena, 2017.eko abuztuak 21

Nafarroako Aldizkari Ofizialak [gaur](#) Garapen Ekonomikorako Departamentuaren [laguntza-deialdi bat](#) argitaratu du gaur, astelehena. Deialdiak 2,35 milioi euro banatuko ditu ekipamendu zientifiko eta teknologikoaren erosketara, hobekuntza eta instalatzea finantzatzeko eta kudeaketa-sistemak eskuratzeko, zientzialariek eta teknikariek azpiegituren erabilera partekatua egin dezaten.



Laguntzek ekipamendua nahiz kudeaketa-sistemak finantzatzeko dituzte.

Laguntza horietara aurkez daitezke Nafarroan dauden teknologia-zentroak eta ikertzeko eta hedatzeko erakundeak. Foru Komunitateko irabazi-asmorik gabeko erakundeak ere aurkez daitezke, helburu gisa I+G+b sustatzea badute, eta enpresa publikoak. Irailaren 11 arte eskatu behar dira Nafarroako Gobernuaren Izapideen Katalogoaren Fitxaren bidez, www.navarra.es web-orrian.

Deialdi hau, Nafarroako Gobernuak berriki onartutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean oinarritzen da. Hor, ikerketa-azpiegituren garrantzia eta beharrak eta finantzazioa aztertzeke komenigarritasuna jasotzen dira. Planak ekipamendu zientifiko horren erabilera partekatua sustatzea barne hartzen du.

Adierazi denez, batetik, teknologia-zentroen eta ikerketa-erakundeen ekipamendu zientifiko-teknologikoa eskuratzera, hobetzea eta instalatzea diruz lagunduko dira, eraikinak berritzeko obra zibila eta jarduerarako altzariak barne. Bestetik, azpiegituren kudeaketa-sistemen abian jartzea eta teknologia eta ikerketa zentroak hornitzea, komunitate zientifiko eta teknikoaren eskura jarri ahal izateko.

Finantzatzen diren jarduerak 2017. urtean egin beharko dira, eskaera aurkezten den egunetik. Laguntza diruz lagun daitekeen % 50ekoa izango da, azpiegiturak eta ekipamendu zientifikoak kudeatzeko sistemarako izan ezik, ia % 100 artekoa izango baita.